10.2. Prozedura negoziatuan, kontratua Kontratazio Organoak arrazoituta hautatutako lizitatzaileari esleituko zaio. Horretarako, ordea, aurrez lehiakide desberdinekin hitz egingo du eta horietako bat edo besterekin kontratuko baldintzak negoziatuko ditu.

10.3. Sueskola Gipuzkoa Fundazioak presazko tramitazioa erabil dezake behar atzeraezineko kontratu negoziatuetan. Kontratazio organoak behar bezala arrazoituko du presazko izendapena. Kasu horietan, jarraibideetan ezarritako epe orokorrak dezente murriztu daitezke.

10.4. 50.000 eurotik gorako kontratuetan, Sueskola Fundazioak agiri bat eratuko du. Agiri horretan, Sektore Publikoko Kontratuen Legeko 121.2 artikuluan aipatutako baldintzak jasoko ditu eta baita negoziatu beharreko alderdi ekonomiko eta teknikoak ere, halakorik izanez gero behintzat.

10.5. Sektore Publikoko Kontratuen Legean –154. art., a) eta b) letrak; 155. art., a) letra, edota 158. art., a) letra– aurreikusitako zirkunstantziak gertatzen badira eta, ondorioz, prozedura negoziatua erabili behar bada, lizitazio iragarkia argitaratu beharko du Sueskola Gipuzkoa Fundazioak. Lizitazio iragarki hori interneten emango da argitara, Sueskola Gipuzkoa Fundazioaren kontratugile-profilean.

10.6. Lizitazio iragarkian proposamenak aurkezteko epea adieraziko da. Epe hori, kontratuaren xedearen konplexutasunaren arabera zentzuz beharrezkoa izan daitekeen denbora kontuan hartuta ezarriko da, baina gutxienez ere hamar egunekoa izango da iragarkia argitaratzen denetik hasita.

10.7. Horrez gain, kontratazio espedientea egunkari ofizialetan, entitatearen web orrian edota bidezkotzat jo daitekeen beste edozein bide erabiliz argitaratzea erabaki daiteke. Prozedura negoziatura jotzeko arrazoia aurreko prozeduretan eskaintza irregularrak edo onartezinak aurkeztu izana bada, iragarkia ez da nahitaez argitaratu beharrik izango, baldin eta aurrez erabilitako prozedura irekian edo elkarrizketa lehiakorreko prozeduran, exijitutako betekizun formal guztien arabera eskaintzak aurkeztu dituzten lizitatzaile guztiak, eta horiek bakarrik, kontratuaren negoziazioan sartzen badira.

10.8. Era berean, araudi adostua bete beharrik ez duten eta prozedura negoziatuaren bitartez eslei daitezkeen kontratuetan –Sektore Publikoko Kontratuen Legeko 155.d), 157.f), 158.e) eta 159. artikuluetan adierazitako kopurura iristen ez direlako–, puntu honetako lehen paragrafoan aurreikusitakoaren arabera argitaratu beharko dira zenbatetsitako balioa 200.000 eurotik gorakoa duten obra-kontratuen lizitazio iragarkiak, edota 60.000 eurotik gorakoa duten gainerako kontratuenak.

10.9. Prozedura negoziatura jotzen den gainerako kasuetan lizitazioa ez da derrigorrez argitaratu beharko, baina lehiakideen konkurrentzia ziurtatu beharko da, Sektore Publikoko Kontratuen Legeko 162. artikuluan ezarritakoari jarraituz. Horrelakoetan, hautatutako pertsona fisiko eta juridiko guztiei idatziz eta aldi berean eskatuko zaizkie eskaintzak.

10.10. Prozedura negoziatuan, ahal bada behintzat, kontratuaren xedea betetzeko gaitasuna duten hiri enpresari gutxienez eskatuko zaie eskaintza.

10.11. Kontratazio Organoak lizitatzaileekin negoziatuko ditu hauek aurkeztutako proposamenak, baldintzen agirian edota agiri osagarrietan ezarritako betekizunetara egokitzeko eta, horrela, ekonomikoko onuragarriena den eskaintza identifikatu ahal izateko.

10.2. En el procedimiento negociado la adjudicación recaerá en el licitador justificadamente elegido por el Órgano de Contratación, tras efectuar consultas con diversos candidatos y negociar las condiciones del contrato con uno o varios de ellos.

10.3. La Fundación Sueskola Gipuzkoa Fundazioa podrá recurrir a la tramitación urgente de aquellos contratos negociados cuya celebración responda a una necesidad inaplazable. La declaración de urgencia que efectúe el Órgano de Contratación será debidamente motivada. En estos casos, los plazos generales marcados en estas Instrucciones podrán verse sensiblemente reducidos.

10.4. En los contratos de cuantía superior a 50.000 euros, la Fundación Sueskola Gipuzkoa Fundazioa elaborará un pliego en que se contengan las condiciones señaladas en el artículo 121.2 de la LCSP, y en el que se incluirán los aspectos económicos y técnicos que, en su caso, hayan de ser objeto de negociación.

10.5. Cuando se acuda al procedimiento negociado por concurrir las circunstancias previstas en la Ley de Contratos del Sector Público, recogidas en las letras a) y b) del artículo 154, en la letra a) del artículo 155, o en la letra a) del artículo 158, la Fundación Sueskola Gipuzkoa Fundazioa deberá publicar un anuncio de licitación. Este anuncio se realizará a través de Internet, en el perfil del contratante de la Fundación Sueskola Gipuzkoa Fundazioa.

10.6. En el anuncio de licitación se incluirán los plazos establecidos para la presentación de las propuestas, teniendo en cuenta el tiempo que razonablemente pueda ser necesario en función de la complejidad del objeto del contrato que será, como mínimo, de diez días desde la publicación del anuncio.

10.7. De manera adicional, se podrá decidir la publicación del expediente de contratación en los diferentes diarios oficiales, en su página web institucional y, en su caso, en cualquier otro medio que se considere. Podrá prescindirse de la publicación del anuncio cuando se acuda al procedimiento negociado por haberse presentado ofertas irregulares o inaceptables en los procedimientos antecedentes, siempre que en la negociación se incluya a todos los licitadores que en el procedimiento abierto o en el procedimiento de diálogo competitivo seguido con anterioridad, hubiesen presentado ofertas conformes con los requisitos formales exigidos, y sólo a ellos.

10.8. Igualmente, en los contratos no sujetos a regulación armonizada que puedan adjudicarse por procedimiento negociado por ser su cuantía inferior a la indicada en los artículos 155, letra d), 157, letra f), 158, letra e) y 159 de la LCSP, deberán publicarse anuncios conforme a lo previsto en el primer párrafo de este punto cuando su valor estimado sea superior a 200.000 euros, si se trata de contratos de obras, o a 60.000 euros, cuando se trate de otros contratos.

10.9. En los restantes supuestos de utilización del procedimiento negociado no será necesario dar publicidad al mismo, asegurándose la concurrencia mediante el cumplimiento de lo previsto en el artículo 162 de la LCSP. La petición de ofertas en estos casos se realizará por escrito y de manera simultanea a todas las personas, físicas o jurídicas, seleccionadas.

10.10. En el procedimiento negociado será necesario solicitar ofertas, al menos, a tres empresas capacitadas para la realización del objeto del contrato, siempre que ello sea posible.

10.11. El Órgano de Contratación negociará con los licitadores las ofertas que éstos hayan presentado para adaptarlas a los requisitos indicados en el pliego y en los posibles documentos complementarios, con el fin de identificar la oferta económicamente más ventajosa.

10.12. Horniduren edo zerbitzuen kontratuetan, esleipenaren prezioa 18.000 eta 50.000 euro bitartekoa bada, eta zehaztapen teknikoak argi eta garbi adierazita badaude, hasieran aurkeztutako proposamenak baloratze soila nahikoa izango da negoziazioa egintzat jotzeko.

10.13. Kontratazio Organoak, aurkeztutako proposamenak baloratu ondoren, kontratuaren esleipena egingo dio proposamen ekonomiko onuragarriena aurkeztu duen lizitatzaileari.

10.14. Publizitatea eskatzen duten prozedura negoziatuetan, lizitatzaileei esleipenaren berri eman beharko zaie. Esleipena kontratugile-profilean argitaratuko da beti. Hain zuzen ere, lizitatzaile bakoitzari banan-banan jakinarazpena egin ordez, argitaratze-bide hori erabili ahal izango da.

10.15. Esleipendun suertatu den lizitatzaileak ez badu betetzen kontratua burutzeko beharrezkoa den baldintzaren bat, Sueskola Gipuzkoa Fundazioak lehiakide horren ondorengoari edo ondorengoei esleitu ahal izango die kontratua, eskaintzen azken sailkapeneko hurrenkeraren arabera, baldin eta halako aukerarik badago eta, betiere, esleipendun berria ados badago.

10.16. Prozedura negoziatuen ondorio diren kontratuak jarraibide hauetan prozedura irekiarentzat ezarritakoari jarraituz sinatuko dira.

10.17. Jarraibide hauen arabera baldintza agiriak derrigorrezkoak ez diren kasuetan, sinatzeko epea bi aldeen artean adostuko da.

*11. Lehiazko elkarrizketa.*

11.1. Sueskola Gipuzkoa Fundazioak prozedura horri hel diezaioke, Sektore Publikoko Kontratuen Legeko 164.1. eta 164.2. artikuluetan adierazitako kasuren bat gertatzen denean.

11.2. Lehiaketa-elkarrizketan, Sueskola Gipuzkoa Fundazioko Kontratazio Organoak elkarrizketa bat antolatuko du aukeratutako hautagaiekin, hauek hala eskatu ondoren, beren premiak bete ditzaketen irtenbidea edo irtenbideak garatzeko. Aukeratutako hautagaiek irtenbide horiek hartuko dituzte, hain zuzen, beren eskaintza egiteko oinarri gisa. Kontratazio Organoak sari edo konpentsazio bat ezar dezake elkarrizketan parte hartzen dutenentzako.

11.3. 50.000 eurotik gorako kontratuetan, Sueskola Gipuzkoa Fundazioak agiri bat eratuko du, Sektore Publikoko Kontratuen Legeko 121.2 artikuluan xedatutakoaren arabera. Agiri horretan, elkarrizketaren xede izango diren alderdi ekonomiko eta teknikoak adieraziko ditu, halakorik izanez gero behintzat; eta, era berean, proposamenak aurkezteko epeak ezarriko ditu, kontratuaren xedearen konplexutasunaren arabera zentzuz beharrezkoa izan daitekeen denbora kontuan hartuta.

11.4. Lehiaketa-elkarrizketara jotzen bada Sektore Publikoko Kontratuen Legean aurreikusitako zirkunstantziak gertatzen direlako, eta kontratuaren prezioak 50.000 euro gainditzen ez baditu, lizitazio iragarkia argitaratu beharko du Sueskola Gipuzkoa Fundazioak. Lizitazio iragarki hori interneten emango da argitara, Sueskola Gipuzkoa Fundazioaren kontratugile-profilean. Horrez gain, kontratazio espedientea egunkari ofizialetan, entitatearen web orrian edota bidezkotzat jo daitekeen beste edozein bide erabiliz argitaratzea erabaki daiteke. Sektore Publikoko Kontratuen Legeak 165. artikuluan ezarritako irizpideei jarraituz, lizitazio iragarkiak honakoak zehaztu beharko ditu: Hautagaiak hautatzeko irizpideak, gutxieneko hautagai kopurua, eta lehiaketan parte hartzeko eskabideak aurkezteko epea.

10.12. En aquellos contratos de suministros o servicios cuyo precio de adjudicación se encuentre entre 18.000 y 50.000 euros, en los que las especificaciones técnicas se encuentren claramente definidas, la negociación se entenderá realizada con la mera valoración de las propuestas iniciales presentadas.

10.13. Realizada la valoración de las propuestas presentadas, el Órgano de Contratación adjudicará el contrato al licitador que hubiera presentado la oferta económicamente más ventajosa.

10.14. En los procedimientos negociados con publicidad la adjudicación deberá notificarse a los licitadores. En todo caso, la adjudicación deberá publicarse en el perfil del Contratante, lo que podrá sustituir a la notificación individualizada a cada uno de los licitadores.

10.15. Cuando el licitador que hubiese resultado adjudicatario no cumpliera algunas de las condiciones requeridas para realizar el contrato, la Fundación Sueskola Gipuzkoa Fundazioa podrá efectuar una nueva adjudicación al licitador o licitadores siguientes a aquél, por el orden en que hayan quedado clasificadas sus ofertas, siempre que ello fuese posible y que el nuevo adjudicatario haya prestado su conformidad.

10.16. La formalización de los contratos resultantes del procedimiento negociado será el previsto en estas instrucciones para el procedimiento abierto.

10.17. En aquellos casos establecidos en este procedimiento en los que no es necesaria la emisión de pliegos, el plazo de formalización del contrato será el acordado entre las partes.

*11. Dialogo competitivo.*

11.1. La Fundación Sueskola Gipuzkoa Fundazioa podrá utilizar este procedimiento cuando se de alguno de los supuestos recogidos en los artículos 164.1 y 164.2 de la LCSP.

11.2. En el diálogo competitivo, el Órgano de Contratación de Fundación Sueskola Gipuzkoa Fundazioa dirige un diálogo con los candidatos seleccionados, previa solicitud de los mismos, a fin de desarrollar una o varias soluciones susceptibles de satisfacer sus necesidades y que servirán de base para que los candidatos elegidos presenten una oferta. El Órgano de Contratación podrá establecer una prima o compensación para los participantes en el diálogo.

11.3. En los contratos de cuantía superior a 50.000 euros, la Fundación Sueskola Gipuzkoa Fundazioa elaborará un pliego conforme se estipula en el artículo 121.2 de la LCSP, en el que se incluirán los aspectos económicos y técnicos que, en su caso, hayan de ser objeto de diálogo, así como los plazos establecidos para la presentación de las propuestas, teniendo en cuenta el tiempo que razonablemente pueda ser necesario en función de la complejidad del objeto del contrato.

11.4. Cuando se acuda al diálogo competitivo por concurrir las circunstancias previstas en la Ley de Contratos del Sector Público y el importe del contrato supere los 50.000 euros, la Fundación Sueskola Gipuzkoa Fundazioa deberá publicar un anuncio de licitación. Este anuncio se realizará a través de Internet, en el perfil del contratante de la Fundación Sueskola Gipuzkoa Fundazioa. De manera adicional, se podrá decidir la publicación del expediente de contratación en los diferentes diarios oficiales, en su página web institucional y, en su caso, en cualquier otro medio que se considere. En el anuncio se deben definir los criterios para la selección de candidatos, el número mínimo de candidatos y el plazo para la presentación de las solicitudes de participación, siguiendo los criterios del artículo 165 de la LCSP.

11.5. Lehiaketa-elkarrizketa erabiltzen den gainerako kasuetan lizitazioa ez da derrigorrez argitaratu beharko, baina lehiakideen konkurrentzia ziurtatu beharko da, elkarrizketan gutxienez hiru enpresen partaidetza bermatuz.

11.6. Kontratazio Organoak elkarrizketa hasiko du hautagai hautatuekin, bere beharrak betetzeko bitarteko egokiak finkatu eta zehazteko xedez. Elkarrizketan zehar, Kontratazio Organoak tratu berdina emango die lizitatzaile guztiei; zehazki, ez du emango, era diskriminatzailean, lizitatzaile batzuentzat besteekiko abantailaren bat eragin dezakeen informaziorik. Kontratazio Organoak elkarrizketa jarraituko du bere beharrei irtenbideak eskainiko dizkien baldintzak eman arte. Une horretan amaituko da elkarrizketa eta Kontratazio Organoak dei egingo die lizitatzaileei beren azken eskaintza aurkez dezaten. Prozesu horretan Sektore Publikoko Kontratuen Legeko 166. eta 167. artikuluetan ezarritako araubidea aplikatuko zaie, xedapen horiek Fundazioaren izaerarekin eta eragiketaren ezaugarriekin bat etortzen direnean, betiere.

11.7. Lizitatzaileei esleipenaren berri eman beharko zaie. Esleipena kontratugile-profilean argitaratuko da beti. Hain zuzen ere, lizitatzaile bakoitzari banan-banan jakinarazpena egin ordez, argitaratze-bide hori erabili ahal izango da.

11.8. Hautagaiekin izandako elkarrizketen ondorio diren kontratuak jarraibide hauetan prozedura irekiarentzat ezarritakoari jarraituz sinatuko dira.

*12. Proiektuen lehiaketa.*

Sueskola Gipuzkoa Fundazioak proiektu lehiaketen prozedura erabili ahal izango du Sektore Publikoko Kontratuen Legeko 168. artikuluan aipatutako kasuren bat ematen denean; eta horrelakoetan, aipatutako legeak 169. artikulutik 172. artikulura xedatutakoa ere aplikatuko da. Hala eta guztiz ere, 50.000 eurotik gorako kontratuen lizitazioari buruzko informazioa Sueskola Gipuzkoa Fundazioaren kontratugile-profilean txertatzearekin betetzat joko dira publizitate printzipiotik eratorritako eskakizunak.

*13. Lizitazio egintzen aurka egitea.*

13.1. Jarraibide hauei lotutako kontratuak, jurisdikzio zibilean inpugnatu ahal izango dira.

13.2. Hala ere, Sektore Publikoko Kontratuen Legeko 310. artikuluko egoeraren bat gertatuz gero, aipatutako artikuluko 2. idatz-zatian adierazten diren egintzei kontratazio alorreko errekurtso berezia jarri ahalko zaie. Errekurtso berezi hori aukerakoa izango da eta kontratazio alorreko errekurtsoetarako Foru Auzitegi Administratiboaren aurrean jarriko da, administrazioarekiko auzietarako errekurtsoa jarri aurretik.

13.3. Errekurtsoa Gipuzkoako Sueskola Fundazioaren aurrean nahiz Auzitegiaren aurrean aurkeztu ahal izango da.

13.4. Errekurtsoa Sektore Publikoko Kontratuen Legearen 312. artikulua eta ondorengoak jarraikiz izapidetuko da.

13.5. Kontratuei kontratazio gaietako errekurtso berezia jarrai ahal bazaie, kontratu horiek ezingo dira sinatu, harik eta lizitatzaileei eta hautagaiei esleipenaren jakinarazpena igortzen zaienetik hamabost lanegun iragan arte.

*14. Indarraldia.*

Jarraibide hauek Sueskola Gipuzkoa Fundazioak egiten dituen kontratu guztietan aplikatuko dira, Patronatuak onartzen dituen une beretik aurrera

11.5. En los restantes supuestos de utilización del diálogo competitivo, no será necesario dar publicidad al mismo, asegurándose la concurrencia mediante la participación en el diálogo de al menos tres empresas.

11.6. El órgano de contratación desarrollará con los candidatos seleccionados un diálogo cuyo fin será determinar y definir los medios adecuados para satisfacer sus necesidades. Durante el diálogo, el órgano de contratación dará un trato igual a todos los licitadores y, en particular, no facilitará, de forma discriminatoria, información que pueda dar ventajas a determinados licitadores con respecto al resto. El órgano de contratación desarrollará el diálogo hasta que se encuentre en condiciones de determinar las soluciones adecuadas a sus necesidades. En ese momento, tras declarar cerrado el diálogo, el órgano de contratación invitará a los licitadores a que presenten su oferta final. En este proceso se aplicarán las disposiciones contenidas en los artículos 166 y 167 de la LCSP siempre que resulten acordes con la naturaleza de la Fundación y las características de la operación.

11.7. La adjudicación deberá notificarse a los licitadores. En todo caso, la adjudicación deberá publicarse en el perfil del Contratante, lo que podrá sustituir a la notificación individualizada a cada uno de los licitadores.

11.8. La formalización de los contratos resultantes del procedimiento de dialogo con los candidatos será el previsto en estas instrucciones para el procedimiento abierto.

*12. Concurso de Proyectos.*

La Fundación Sueskola Gipuzkoa Fundazioa podrá utilizar el procedimiento de Concurso de Proyectos cuando se dé alguno de los supuestos del artículo 168 de la LCSP, a los que serán de aplicación también los artículos 169 a 172 de la misma ley, si bien se entenderán cumplidas las exigencias derivadas del principio de publicidad con la inserción de la información relativa a la licitación de los contratos cuyo importe supere los 50.000 euros en el perfil del contratante de la Fundación Sueskola Gipuzkoa Fundazioa.

*13. Impugnación de actos licitatorios.*

13.1. La impugnación respecto de los contratos sujetos a las presentes Instrucciones se efectuará ante el orden jurisdiccional civil.

13.2. No obstante, cuando concurra alguno de los supuestos citados en el artículo 310 LCSP, serán susceptibles del recurso especial en materia de contratación los actos que en el apartado 2 de dicho artículo se señalan. Este recurso especial tendrá carácter potestativo y se interpondrá ante el Tribunal Administrativo Foral de Recursos contractuales con anterioridad a la interposición del recurso contencioso-administrativo.

13.3. El recurso podrá presentarse, indistintamente, en las oficinas de la Fundación Sueskola Gipuzkoa Fundazioa o ante el propio Tribunal.

13.4. El recurso se tramitará de conformidad con lo dispuesto en los artículos 312 y siguientes de la LCSP.

13.5. Si los contratos son susceptibles de recurso especial en materia de contratación, la formalización de aquellos no podrá efectuarse antes de que transcurran quince días hábiles desde que se remita la notificación de la adjudicación a los licitadores y candidatos.

*14. Vigencia.*

Las presentes Instrucciones se aplicarán, a partir de su aprobación por el Patronato, para la celebración de todos los contratos de la Fundación Sueskola Gipuzkoa Fundazioa.

*15. Kontratazio zentralari atxikitzea eta esparru akordioan oinarritutako kontratuen esleipena.*

15.1. Sueskola Gipuzkoa Fundazioko Patronatuak, Sektore Publikoko Kontratu Legearen 189.3. artikuluaren babesean, Gipuzkoako Foru Aldundiaren eskuratze zentralizatuko sistemari atxikitzea erabaki ahal izango du Foru Kontratazioen Zentralaren bitartez, eta horretarako, Gipuzkoako Foru Aldundiko Foru Kontratazioen Zentrala eta Zerbitzu Orokorretako Kontratazio Mahaia arautzen dituen 2011ko otsailaren 22ko 3/2011 Foru Dekretuaren eranskinean jasorik dagoen hitzarmena formalizatu beharko du.

15.2. Hala ere, Foru Kontratazioen Zentralak deitutako kontratazio espediente bakoitzaren hasieran, Fundazioa formalki atxiki beharko zaio, eskaera Idazkaritza Nagusira igorrita, eta handik baldintza administratibo berezien eta ezaugarri teknikoen agiriak bidaliko dizkiote, kontratuaren gutxi gorabeherako balioa eta egikaritzeko baldintzak ezartzeko kontuan hartu behar diren oharrak eta datuak erantsi ditzaten.

15.3. Foru Kontratazioen Zentralari dagokio espedienteari hasiera ematea eta izapidetzea enpresari batekin edo batzuekin esparru akordio bat lortzeko, Sektore Publikoko Kontratu Legearen 180. eta 181. artikuluen arabera. Halaber, Zentralaren egitekoa izango da aipatutako akordioari bukaera ematea, II. Liburuan eta liburu horren I.Tituluko I. Kapituluan ezarritako prozedura arauen arabera.

15.4. Behin Foru Kontratazioen Zentralak dagokion esparru akordioa bukatzen duenean, Sueskola Gipuzkoa Fundazioari jakinaraziko dio eta honek akordio horretan oinarritutako kontratua esleituko dio dagokion enpresari. Esleipen horretan, Fundazioak ezingo du, inola ere, garrantzizko aldaketarik sartu esparru akordioan ezarritakoekiko.

15.5. Esparru akordioa enpresari bakar batekin sinatzen bada, Fundazioak zuzenean kontratu horretan ezarritako baldintzen arabera esleituko du.

15.6. Esparru akordioa enpresari batekin baino gehiagorekin sinatzen bada, Fundazioak esparru akordioan bertan ezarritako baldintzen arabera esleituko du kontratua, enpresari horien arteko lizitazio prozesurik egin beharrik izan gabe. Alabaina, Esparru Akordioan kontratuaren baldintza guztiak jasotzen ez badira, kontratua esleitzeko Fundazioak lizitazio deialdia egingo die esparru akordioa adostu duten enpresariei, Sektore Publikoko Kontratuen Legeko 182. artikuluan onartutako baldintzetan.

15.7. Foru Kontratazioen Zentralak egindako Esparru Akordioan oinarritutako kontratuaren esleipena argitaratzea edo ez argitaratzea Fundazioari dagokio. Esleipena argitaratzea erabakitzen badu, Sektore Publikoko Kontratuen Legearen 182. eta 138. artikuluetan ezarritakoaren arabera egingo du.

15.8. Fundazioaren egitekoa da Esparru Akordioan oinarritutako kontratua formalizatzea, baita horren berri ematea ere. Fundazioak bere Kontratatzailearen Profilean emango du kontratuaren berri, 2010eko abuztuaren 5eko 34/10 Legeak 1.25 artikuluan aurreikusitakoaren arabera. Lege horrek ondorengo beste hauek aldatzen ditu aipatuko diren lehenengo biak araudi komunitariora egokitzeko: 2007ko urriaren 30eko 30/07 Legea, sektore publikoko kontratuena; 2007ko urriaren 30eko 31/07 Legea, ura, energia, garraio eta posta zerbitzuen sektoretako kontratazio prozedurei buruzkoa; eta 1998ko uztailaren 13ko 29/98 Legea, administrazioarekiko auzietarako jurisdikzioa arautzekoa.

*15. Adhesión a la Central de Contratación y adjudicación de contratos basados en un Acuerdo Marco.*

15.1. El Patronato de la Fundación Sueskola - Gipuzkoa Fundazioa, al amparo del artículo 189.3 de la LCSP, podrá acordar su adhesión al sistema de adquisición centralizada de la Diputación Foral de Gipuzkoa a través de la Central de Contratación Foral, formalizando para ello el convenio cuyo texto está recogido en el anexo del Decreto Foral 3/2011, de 22 de febrero, por el que se regula la Central de Contratación Foral y la Mesa de Contratación de Servicios generales de la Diputación Foral de Gipuzkoa.

15.2. No obstante, con carácter previo al inicio de cada expediente de contratación que convoque la Central de Contratación Foral, la Fundación deberá formalmente adherirse al mismo, dirigiendo la solicitud a la Secretaría de la Central, quien remitirá el borrador de los pliegos de cláusulas administrativas particulares y de prescripciones técnicas para que se aporten las consideraciones y los datos necesarios que deban ser tenidos en cuenta para establecer el valor estimado del contrato y las condiciones de ejecución del mismo

15.3. Corresponderá a la Central de Contratación Foral el inicio y la tramitación del expediente para concluir un Acuerdo Marco con uno o varios empresarios, en base a los artículos 180 y 181 de la LCSP, siendo, así mismo, el órgano competente para la conclusión del citado acuerdo conforme a las normas de procedimiento establecidas en el Libro II y en el Capítulo I del Título I de dicho Libro.

15.4. Una vez que la Central de Contratación Foral concluya el Acuerdo Marco correspondiente, se lo notificará a la Fundación Sueskola Gipuzkoa Fundazioa, quien procederá a adjudicar el contrato basado en aquel con la empresa que corresponda. En ningún caso en esta adjudicación la Fundación podrá introducir modificaciones sustanciales respecto a los términos establecidos en el Acuerdo Marco.

15.5. Si el Acuerdo Marco se hubiera concluido con un único empresario, la Fundación procederá directamente a adjudicar el contrato con arreglo a los términos establecidos en él.

15.6. Si el Acuerdo Marco se hubiese concluido con dos o más empresarios, la Fundación adjudicará el contrato aplicando los términos fijados en el propio Acuerdo Marco, sin que sea necesario que convoque un proceso licitatorio entre ellos. Sin embargo, cuando no todos los términos del contrato estén establecidos en el Acuerdo Marco, la Fundación adjudicará su contrato convocando a una nueva licitación a los empresarios con los que se haya concluido el Acuerdo, en los términos reconocidos en el artículo 182 de la LCJP.

15.7. Corresponderá a la Fundación decidir si publica o no la adjudicación del contrato basado en el Acuerdo Marco celebrado por la Central de Contratación Foral. Si resuelve su publicación procederá conforme a lo establecido en los artículos 182 y 138 de la LCSP.

15.8. Corresponderá a la Fundación la formalización del contrato basado en el Acuerdo Marco, así como la publicidad de su formalización. Esta se realizará en su Perfil de Contratante, conforme a lo previsto en el artículo primero veinticinco de la Ley 34/2010, del 5 de agosto, de modificación de las leyes 30/2007, de 30 de octubre, de Contratos del Sector Público, 31/2007, de 30 de octubre, sobre procedimientos de contratación en los sectores del agua, la energía, los transportes y los servicios postales y 29/1998, de 13 de julio, reguladora de la Jurisdicción contencioso-administrativa, para adaptación a la normativa comunitaria de las dos primeras.

*Aldi baterako jarraibide bakarra.*

Fundazioak Sektore Publikoko Kontratuen Legeko 42. artikuluan aipatzen den sistema informatikoa eskuratu bitartean, jarraibide hauek eta Sueskola Gipuzkoa Fundazioaren kontratatze jarduerari buruzko informazio guztia Gipuzkoako ALDIZKARI OFIZIALEAN eta Patronatuak erabakitzen dituen gainerako egunkari ofizialetan argitaratuko dira.

Ordizia, 2011ko irailaren 5a.—Garbiñe Errekondo Salsamendi, Patronatuko lehendakaria. (10493)

*Instrucción transitoria única.*

Serán objeto de publicación en el BOLETIN OFICIAL de Gipuzkoa, y en los demás diarios oficiales que acuerde el Patronato de la Fundación, tanto estas Instrucciones como la información relativa a la actividad contractual de la Fundación Sueskola Gipuzkoa Fundazioa, hasta que la Fundación cuente con el correspondiente sistema informático a que se refiere el artículo 42 de la LCSP.

Ordizia, a 5 de setiembre de 2011.—La Presidenta del Patronato, Garbiñe Errekondo Salsamendi. (10493)